

**DIPUTATUEN KONGRESUKO TALDE  
PARLAMENTARIO ETA ALDERDI  
POLITIKOENTZAKO TXOSTENA,  
DAGOENeko DESEGINDA DAGOEN ETA  
ERAKUNDEAREKIN IZANDAKO LOTURA  
ZUZEN EDO ZEHARKAKOAREN  
ONDORIOZ, PRESO DAUDEN  
EUSKALDUNEN EGOERARI ETA  
ESKUBIDEEI BURUZKOA**



**SARE**

KONPONBIDEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO SARE HERRITARRA ELKARTEA

[www.sare.eus](http://www.sare.eus)





## **SARE HERRITARRA elkartearen txostena**

I SARRERA

II ZIFRAK

III DATUAK AZTERTZEKO TESTUINGURUA

IV ESPETXE-POLITIKARI BURUZKO HAUSNARKETA OROKOR BAT

V NEURRI URGENTEAK ESPETXE-POLITIKA DEMOKRATIKO BATEN BARRUAN

VI ERANSKINA

**Euskal Herria  
2020ko otsaila**

**KONPONBIDEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO SARE HERRITARRA ELKARTEA**  
[www.sare.eus](http://www.sare.eus)



## **DIPUTATUEN KONGRESUKO TALDE PARLAMENTARIO ETA ALDERDI POLITIKOENTZAKO TXOSTENA, DAGOENKO DESEGINDA DAGOEN ETA ERAKUNDEAREKIN IZANDAKO LOTURA ZUZEN EDO ZEHARKAKOAREN ONDORIOZ, PRESO DAUDEN EUSKALDUNEN EGOERARI ETA ESKUBIDEEI BURUZKOA**

Txosten hau ETArekin lotura zuzena edo zeharkakoa izateagatik preso dauden euskaldunen egoerari buruzkoa da. Haien oraingo egoera juridikoa eta penala zailantzan jartzeko modukoa da, bai haien oinarrizko eskubideen ikuspuntutik, bai legezkotasun-printzipioaren ikuspuntutik, lau arlotan: sakabanaketa aplikatzea eta haien ingurune sozial eta familiarretik urruntzea; haien osasunaren tratamendua gaixotasun sendaezin larriak dituzten presoek kasuan; gradu-aldaketa, eta zigorraren zati bat Europar Batasuneko espetxeetan bete dituzten presoek zigorren zenbaketa.

### **1. SARRERA.**

a. Espetxeratuta dauden pertsonen familia-bizitzarako eskubidea dute. Eskubide hori Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean dago jasota, eta arau hori Espainiako Estatuan aplikatu beharrekoa da. Eskubide hori zehaztean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak esan du espetxeratuek haien helbidetik hurbil bete behar dituztela zigorrak. Hala dago jasota NBEren eremuan emandako Mandela Arauetan eta Europako Kontseiluaren Ebazpen batean (besteak beste LGPren 12. artikulutik dator ebazpen hori).

Hala ere, Espainiako botere publikoek etxetik urrun dauden espetxeetan dituzte presoak. Urruntze hori justifikatzeko, sakabanatuta mantendu behar zirela erabili izan da arrazoitzat. Baina sakabanaketa ez dago lotuta urruntzearekin. Presoak hainbat espetxetan sakabanatuta egon daitezke, baina horrek ez du esan nahi zentroek urrun egon behar dutenik. Bestalde, ETA desagertu ondoren, ez dago arrazoirik oraingo espetxe-politikari eusteko, ez urruntzeari dagokionez, ez sakabanaketari dagokionez.

b. Gaixotasun larriak eta sendaezinek dituzten presoek baldintzapeko askatasunerako eskubidea aitortzen zaie (Zigor Kodearen 91. art.). Arau hori aplikatzeko, espetxe-administrazioak bizitza arriskuan izatea gaixoa egoera terminalean egotearekin parekatzen du. Interpretazio hori aplikatzeak presoek bizitzarako duten eskubidea baztertzea dakar.

Ondorioz, espetxe-administrazioak aske utzi behar ditu haien bizi-itzaropena luzatzeko aukerarik badago.

c. Euskal presoek kasuan, % 60 baino gehiago lehen espetxe-graduan daude, baina baten bati Espetxeen 1996ko Erregelamenduaren 100.2



artikuluak aplikatu zaio. Lehen gradu horretan egotea oztopo nabarmena da espetxeko onurak aplikatu ahal izateko.

d. Presoek eskubidea dute Europar Batasuneko beste estatu batean betetako zigorrak kontu dakizkien. Beraz, zigorren metaketa arautzen duten Europako arauak betetzeko emandako legeak aldatu egin behar dira, eta Europako esparru-erabakiaren arabera interpretatu. Hau da, erabaki horren xedea errespetatu behar da: biziarteko espetxealdia, zigor neurrigabea edo delitu beragatik zigor bikoitza dakarten ondoz ondoko epaien betearazpena saihestea (Auzitegi Gorenaren 186/2014 epaia, Auzitegi Gorenaren 874/2014 epaiak aldatu zuena).

Espetxeratuaren eskubideen etengabeko urraketa hau ondoren azaltzen diren datuetan ikusten da modu nabarmenean.

## **2. ZIFRAK**

2020ko urtarrilean, 208 preso daude Espainiako 40 espetxetan sakabanatuta, eta 37, Frantziako 10 espetxetan sakabanatuta.

Haietatik, % 80 400 km baino urrunago daude, eta asko dira, gainera, 900 kilometrora edo urrunago daudenak. Bisita egiteko, bidaiak luzeak egin behar dira, eta azken 30 urteetan senideek eta lagunek 347 istripu izan dituzte. Guztira, espetxeetarako bidaietan, 16 pertsona hil dira eta 1.000 zauritu baino gehiago izan dira. 100 ume inguruk 1.000 km baino gehiago egiten dituzte 15-30 egunean behin, denbora mugatu batean aita edo ama edo biak ikusi ahal izateko. Ohikoa da ere presoek gurasoak adinez oso nagusiak izatea, eta bidaiak egiteko arazoak izatea. Senide presoak hain urrun egoteak eragindako gastua 20.000 eurokoa da, batzuetan beste, urtean, familiako. Zama jasanezina da senide gehienentzat, eta aurre egin ahal izan diote Euskal Herriko elkartasun sozialari esker.

Datu hauei presoek adinari dagozkionak gehitu behar zaizkie:

- 20 preso, 60 urtetik gorakoak.
- 13 preso, 65 urtetik gorakoak.
- 2 preso, 70 urtetik gorakoak.
- 55 presok 20 urte baino gehiago bete dituzte espetxean.
- 42 presok beteak dute kondenaren  $\frac{3}{4}$  baino gehiago.



### 3. DATUAK AZTERTZEKO TESTUINGURUA

la 10 urte pasatu dira ETAk azken atentatua egin zuenetik (2010eko martxoaren 16an, Frantzian; polizia bat hil zuten), eta ia 11 urte Espainian egindako azken atentatutik (bi goardia zibil erail zituen Mallorcan).

Hortik urte batera, 2011ko urrian, alde bakarreko erabakia hartuta eta hamarkadetako indarkeriari amaiera emanaz, ETAk jarduera armatua bertan behera uztea erabaki zuen. Gero, beste erabaki batzuk hartu ditu, iragarritako amaiera hori modu ordenatuan gauzatzeko.

2013ko abenduan, euskal preso hauek osatzen duten kolektiboak publiko egin zuen dokumentu bat, non egindako mina aitortzen zuen eta espetxeen arloko legeria erabiltzeko asmoa adierazten zuen, egoera berrira egokitzeko eta espetxealdia eta irteera normalizatzeko. Sei urte igaro dira eta, erabaki puntual batzuk kenduta, espetxe-politikan ez da inolako aldaketarik egin egoera berri horri erantzuteko.

2017ko apirilean, Ipar Euskal Herriko gizarte zibilak, Bakegileak taldearen bitartez, ETAREN armagabetze-prozesua bideratzeko ardura hartu zuen, armategiak entregatuta, orduan Mariano Rajoy jauna buru zuen Espainiako Gobernuaren ekimen faltari aurre egiteko.

Azkenik, ikuspegi juridiko batetik, kontuan hartu behar da data garrantzitsu bat:

ETAREN desegite formal eta ofizialarena, 2018ko martxoaren 3an. Desegiteko erabakia asko luzatu zen sakabanatutako preso guztiek erabakian parte hartzeko aukera izan zezaten, prozesuaren alderdi guztiak lotuta, jardueraren erabateko amaiera modu ordenatuan bideratzeko. Prozesu hori gauzatuta, 2011ko urriaren 20an hartutako erabaki irmoa bete zen. Presoen sakabanaketa eta urruntzea oztopo nabarmena izan da prozesu hori behar bezala gauzatzeko.

Arlo honetan izandako politikaren aipamen laburra egiteko, 1989an hasi zen, Felipe González jaunaren gobernuetako batean, eta gogoratu behar da espresuki esan zela sakabanaketa-politika hori terrorismoaren aurkako politikaren barruan sartzen zela, eta helburu bikoitza zuela: ETAKO presoak – Herrera de la Mancha, Carabanchel, Alcalá-Meco eta Langraitzeko kartzeletan zeuden– erakundearen eraginetik *babeste*a, eta modu indibidualean erakundea uzteko aukera erraztea, aldez aurretik hirugarren gradua eskatuta. Gertatutakoa ikusita, argi dago politika horrek ez zituela bere helburuak lortu, ETAK, 22 urte geroago, indarkeria bertan behera uzteko erabakia hartu zuenerako, presoek ez baitzuten erakundea uzteko erabakirik hartu. Baina, bitartean, urruntze-politika horri eutsi zaio, kalte nabarmenena preso horien senideei eraginez.

Hala, presoak soilik hurbildu dira ETAREN suetenei erantzuteko, eta PPren zein PSOEn gobernuetan gertatu da hori. 2011n, (PPren gobernu), sakabanaketari/urruntzeari amaiera emateko baldintza gisa ezarri zen ETA



desegitea. Eskaera horrek ez zuen oinarri legalik, eta, gainera, presoen eskubideak urratzen zituen. Edonola ere, erakundea desegin zenetik ia urte bi pasatu dira, eta espetxe-politika ez da aldatu.

Bestalde, presoen oinarrizko eskubideak errespetatzeko eta sakabanaketari amaiera emateko eskatzen duen aldarrikapena gehiengo zabalekin babestu da, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarraren osoko bilkuran zein Nafarroako Foru Erkidegoarenean. Adibidez, duela gutxi mozio bana onartu zuten, non hau eskatzen zen: *"beste espetxe politika bat ezartzea, euren gizarte eta familiaren erroetatik urrun diren tokietan bete behar ez ditzaten zigorrak, haien familiekiko harremanak errazteko"*. Parlamentuek gainera, lurralde historikoetako Batzar Nagusiek eta udalerrri ugarik onartu zituzten antzeko eskaerak, eta euskal sindikatuen aho batezko babesa du.

Logika demokratiko eta pragmatiko batetik ikusita, euskal erakundeen borondate politiko horrek eta alde bateko urrats guztiek Espainiako Gobernuaren eta Justiziaren erantzun bat izatea espero zitekeen, behintzat *normalizaziorako*, salbuespeneko politika judizialak eta espetxe-politika indargabetzeko. Are gehiago kontuan hartuta ETArekin negoziazioak izan direnean, edo erakundeak suetenak iragarri dituenen, erabaki garrantzitsuak hartu zirela, eta preso asko Euskal Herriko espetxeetara edo Euskal Herritik hurbil dauden espetxeetara aldatu zituztela, Jose María Aznar jaunaren Gobernuak eta Jaimen Mayor Oreja Barne Arazoetako ministroak aginduta.

Espainiako oraingo espetxe-politikarekin alderatuta, Frantziako Administrazioaren eta Justiziaren elkarriketaren eta lankidetzaren aldeko jarrera nabarmendu behar da. Horri esker, Frantziako espetxeetako euskal preso asko haien jaioterritik hurbilago dauden espetxeetara aldatu dituzte eta espetxe gutxi batzuetan elkartu dituzte.

#### **4. ESPETXE-POLITIKARI BURUZKO HAUSNARKETA OROKOR BAT**

Zuzenbidea arau da giza harreman guztietan, baita preso daudenen kasuan ere, eta horrek betebeharrak dakarkio Estatuari zigortutako pertsonen osasunaren, ongizatearen eta birgizarteratzearen arloan.

Baina espetxe-politika ez dago Justiziaren salbuespenerako bilakaeratik kanpo. Izan ere, salbuespena ezarri da arauetan, epaitegietan, poliziaren jardunean eta espetxeetan, terrorismoari aurre egiteko, eta bide horrek ez du lekurik kalitateko zuzenbide-estatu baten parametroen barruan.

Salbuespeneko legeriak, dotrina judiziala eta espetxe-protokoloak berrikusi behar dira, justizia berrezartzaile batean oinarrituta, zigorrari garrantzia emateaz gainera, biktimen, biktimarioen eta gizartearen arteko harremanari garrantzia emanez eta kalte soziala gainditzeko bidea bilatuz.



Justizia berrezartzailea egokia da iragate politikoa sendotzeko, eta horretarako, printzipio juridikoen (egia, justizia, berrezarpena eta berriro ez gertatzeko bermea) arteko oreka bilatu behar da, baita berradiskidetze politikoa lortzea eta bakea iraunkorra eraikitzea ere, biktima guztiak errespetatuta, biktimaren izaeran bereizketak ezarri nahi dituzten planteamenduetan galdu gabe eta biktima guztien parte-hartzea ezinbestekoa dela ahaztu gabe. Baina ezin dira izan giltza bakarra eta partziala, helburua baita multzo soziala sendatzea, betorik gabe eta interesa duten sektore guztien parte-hartzearekin. Biktimek entzunak izateko eskubidea dute, eragin zaien mina sendatzea merezi dute, baina ez dagokie gobernuek eta/edo parlamentuek ezarri behar duten espetze-politika ezartzea.

Justiziak ezin du amnesiarik izan, baina haren interpretazioa eta jardun politikoa eta espetze-jarduna ezin dira izan normalizazio soziopolitikoaren kontrakoak. Euskal gizarteak egoera hau gainditu nahi du, justiziaren faktura berrinterpretatuta, baina oraindik min eta sufrimendu izugarria eragiten duen historia gogor bat ixteak dakarren eskuzabaltasunez. Beste era batera esanda, bake justu bat lortu nahi du, oroimena baztertu gabe, baina faktura erantsirik eta aldean interesari men egin gabe.

Euskal Herrian izandako indarkeriari dagokionez, batzuek aldarrikatzen duten "garaileak eta garaituak" mezuak berekin dakar gatazkaren eskemari eustea arerioa suntsitu arte. Gaur egun zentzu gutxiago du oraindik ere, eta adiskidetzearen aldeko logikatik urrunen dagoen bidea da.

Kezkagarriena da, indarkeria mota honi dagokionez gero eta neurri gogorragoak adostuta hartzea erraza izan arren, oso zaila dirudiela atzera egitea testuinguru erabat ezberdin honetan, itxaropenerako aukera handiak daudenean. Gizatasunean oinarritutako espetze-politika berriak izan ditzakeen kostuek beldurra eragiten dute, halako gatazkei buruzko hausnarketan baino, propagandan oinarritutako iritzi publikoa baitago aurrez aurre. Biktimen elkarte batzuk –haien interesa eta duintasuna ez lirateke kaltetuko mendekutik urrun dauden gizatasunezko neurriak hartzen badira– bat egiten dute eragile politikoko batzuen jarrera gogorrenekin, eta ahaztu egiten dute presoek ere eskubideak dituztela eta espetze-politikak legea izan behar duela ardatz, eta legean ezarritakoa bete behar duela.

lido horretan, batzuek eskaeren zerrenda luzea prestatu dute beste espetze-politika bat aplikatzen hasi ahal izateko. Besteak beste, biktimei barkamena eskatzea ezarri dute baldintza gisa, eragindako mina aitortuta badago ere, eta erakundea deseginda. Desegite horrek argi uzten du berriro ez errepikatze borondatea.

Pedro Sánchez jaunaren gobernuak 30 lekualdatze egin ditu –gehienek ez dute eragin hurbiltze nabarmenik–, eta 28 gradu-aldaketa. Baina, argi dagoenez, ez da nahikoa esateko espetze-politika aldatzen ari dela.

Gure ustez, arerioen logikaren alternatiba gisa, urrats garrantzitsua izango litzateke testuinguru honetan euskal gizartearentzat bi abiapuntu onartuko balira:





lehenengoa, giza eskubideen eta gizarteratzearen lehentasun etikoan oinarritutakoa, eta, bigarrena, indarkeria eta gatazka baztertu dituen egoera batetik, bakea, bizikidetzeta eta adiskidetzeta euskarri dituen egoera baterako bidean gaudela ulertzean oinarritutakoa. Eta bide horrek guztiok parte hartzea behar du.

Oroimena, biktimentzako arreta eta espetxeetako egoera erregularizatzea, hiru horiek dira elkarbizitzarako eta normalizaziorako esparru batera iristeko aurrebaldintzak.

Hala ere, urruntzea eta sakabanaketa ardatz dituen politika orokorra ez da aldatu, eta Espainiako eta Europako legeriak muturreraino eramaten ari dira, oinarritzko eskubideak urratuta. Gaixotasun larriak dituzten presoak espetxean daude oraindik, eta –beren eskubideak baliatzeko eta birgizarteratzea azkartzeko eskabide indibidualizatuak egin arren– lehen espetxe-graduan daude kolektibo horretako preso gehienak. Hau da, salbuespen-araubide bat aplikatzen ari zaie.

Aurrekoaren ondorioz, Administrazioak erantzun desegokia eman du, instantzia gorenetatik pertsona horien salbuespen-egoera normalizatzeko asmoa adierazi ondoren, gaur-gaurkoz atzeratzen ari baita oraingo egoeran egokiagoak liratekeen neurrien aplikazioa. Ondorioz, erabat zapuztu dira sortutako itxaropenak.

Euskal presoek eskubideen aldeko deialdi sozialen arrakasta izan da erantzun kolektiboa zigor hutsa planteatzen dutenen aurrean. 2020ko urtarrilean, aurreko urteetan legez, Sarek deialdia egin zien herritarrei Bilboko eta Baiona kaleetan oraingo espetxe-politikaren amaieraren alde egin zezaten. Deialdiarekin bat egin zuten, modu aktiboan, hainbat ideologiako 90.000 herritarrek. Horrez gainera, inkestek erakusten dute jada deseginda dagoen ETA erakundeko presoak sakabanatu eta urruntzeko politikari amaiera ematearen aldeko apustuak gizartearen gehiengoaren babesa duela Euskal Herrian. Halaber, herritarren gehiengoak esaten du bereiztu egin behar direla espetxe-politika eta terrorismoaren aurkako politika; ez dela salbuespeneko baldintza berririk ezarri behar; ez dela "garaileak eta garaituak" logika belikoarekin bat egin behar, eta ez dela mina egitera soilik bideratu behar, talioaren legearen aldagai gisa, are gehiago ETA existitzen ez denean.

Horrek erakusten du euskal gizartearen aldarria dela, gizarte antolatu, tolerante eta demokratikoa izateari, komunitate solidarioa izatea gehitzea, mendeetako historia sendoa duen gizartearena. Eta badaki gogoratzeak, oroimena izateak humanoagoa egiten duela. Garai mingarriei amaiera emateko justizia eta eskuzabaltasuna erabiltzeak hobea egiten dutela. Eta bigarren aukerak emateak jakintsuago bihurtzen dutela. Eta horrek guztiak kolektibitatea eraikitzen du, oinarri libre, berdin eta senideen artekoak euskarri hartuta, elkarbizitza sendoago bat ekarriko duen bidean. Bakea eta elkarbizitza lortzeko bideak bultzatzen ditu, legearen aplikazio egokiaren bidez, egoera berriak ekarritako baldintzak kontuan hartuta.



## **5. NEURRI URGENTE ETA UTZIEZINAK ESPETXE-POLITIKA DEMOKRATIKO BATEN BARRUAN.**

Talde eta alderdi politiko aurrerakoiek osatu eta babestutako Gobernu berria aukeratu ondoren, Gorte Nagusien XIV. Legegintzaldiaren hasierak aukera eman behar du norabidea aldatzeko bai eskubide sozialen defentsan, bai giza eskubideen defentsan, bereziki askatasuna kendu zaien pertsonen eskubideen defentsan.

Hori dela eta, SARE ekimen herritarrak uste du berehala hartu behar direla erabaki hauek, giza eskubideez eta legea betetzeaz ari baikara, besterik ez.

1. Gaixotasun larriak edo sendaezinak dituzten presoak eta adin handiko presoak (70 urtetik gorakoak) espetxetik ateratzeko erabakia hartu behar dute agintari eskudunek. Ateratze hori legerian jasotako formuletako bat erabilia bideratu ahal da: Zigor Kodearen 60. eta 80. artikulua, kondena eteteko; Zigor Kodearen 91. artikuluan araututako baldintzapeko askatasuna (ezinbestekoa gaixotasunari bizitzarako arrisku larria eta nabarmena gehitzen bazaio), erdi-askatasuneko erregimena edo zigorraren betetze arindua (hirugarren espetxe-gradua, Espetxeen Erregelamenduaren 104.4 artikulua eta 86.4 art., edo bigarren gradua, 100.2 artikulua aplikatuta).
2. Presoak familiarik eta ingurune sozialetik urruntzeko politika bertan behera utzi behar da, eta hala eskatzen dutenak Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako espetxeetara aldatu. Duela 30 urte baino gehiago ezarritako sakabanaketa politika neurri politiko bat izan zen, eta politikoa izan behar da egoera honi amaiera emateko erabakia ere. Eta ezin da ezer eskatu ordainean.
3. Preso hauek urruntzeko politika bertan behera uzteko helburu hau faseka egitea planteatzen bada, honela hasi beharko litzatekeela uste dugu:
  - a) Gaixotasun larriak eta sendaezinak dituzten presoak hurbiltzea, haien egoera klinikoari, familiarik urrun egotea gehitzen baitzaio.
  - b) Seme-alaba txikiak dituzten presoak hurbiltzea, ume eta neska-mutiko horiek bidaia luzeak egin behar baitituzte beren guraso presoak bisitatzeko. Datu zehatz bat: ume hauek 10 urte betetzen dituztenean, urtean, gehienez, 24 bisita-ordu izan ditzakete, guztira;
  - c) Adin handiko presoen eta espetxealdi luzeak bete dituztenak hurbiltzea.



4. Gradu-aldaketak, baimenak eta luditzeak behin eta berriz eta arrazoi barik ukatzeko politika desagertu behar da, 1973ko Zigor Kodea aplikatzen ari zaien kasuan. Ildo horretan, Fiskaltzak jardun-batasunaren printzipioa aplikatu beharko luke, eta, aldi berean, espetxe-jurisprudentziaren arloko eskumena itzuli behar zaie epaile naturalei. Horren ondorioz, derogatu egin behar dira espetxe-zaintzako epaitegi zentralak.
5. Baldintzapeko askatasuna eman behar zaie kondenaren hiru laurdenak bete dituzten presoeri, hirugarren gradua onartu ondoren.
6. Premiazkoa da espetxe-politika argia, aurrez ikusteko modukoa eta Administrazioaren araudi propioan oinarritutakoa ezartzea. Araudi horrek legezkontasun-printzipioa izan behar du ardatz (Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorra eta Espetxeen Erregelamendua), interpretazio analogiko murriztaileak saihesteko.

## **ERANSKINA**

### **\* Presoen tratamendurako gutxieneko arauak. Mandela Arauak (Nazio Batuak)**

59. zk.: ...ahal den neurrian, presoek **beren bizilekutik** edo beren gizarteratze-tokitik **hurbil** dauden espetxeetan egon behar dute.

### **\* Europako espetxe-arauak**

17.1 araua: Presoak haien bizilekutik edo gizarteratze-zentrotik hurbilen dauden espetxeetan sartu behar dira

17.3 araua: Ahal den neurrian, presoeri galdetu egin behar zaie haien hasierako destinoari buruz, eta espetxe batetik bestera aldatzen diren bakoitzean

### **\* Giza Eskubideen Europako Hitzarmena**

8.1 *“Pertsona orok du bizitza pribatua eta familia-bizitza, etxebizitza eta posta-trukea errespetatuak izateko eskubidea.*

2. *Ezin da agintaritza publikoaren injerentziarik egon eskubide horretan legean ez badago horretarako aukera jasota eta, gizarte demokratiko batean, segurtasun nazionala, segurtasun publikoa, herriaren ongizate ekonomikoa, ordenaren defentsa eta delituaren prebentzioa, osasunaren eta moralaren babesa edo eskubideen eta gainerakoen askatasunen babesa bermatzeko neurri gisa hartzen ez bada”.*



## \* **Zigor Kodea, 2015eko aldaketa eta gero**

60.1 art.: “Epai irmoa eman eta gero, zigortuari buru-nahaste iraunkor eta larria antzematen zaionean, eta, horren ondorioz, zigorraren esanahia ulertu ezin duenean, espetxe-zaintzarako epaileak askatasunaz gabetzeko ezarri zigorraren betearazpena etengo du, zigortuak nahitaezko osasun-laguntza jasotzen duela bermatuz; horretarako, kode honek arautzen dituen segurtasun-neurrien artean, askatasunaz gabetzen duten horietatik bat ezar dezake, eta neurri hori ezin da inoiz izan ordeztutako zigorra baino astunagoa. Izaera desberdineko zigorra izanez gero, espetxe-zaintzarako epaileak kontuan hartuko du zigortuaren egoerak ahalbidetzen duen ala ez hark zigorraren esanahia ulertzea, eta, hala denean, betearazpena etengo du, beharrezkotzat jotzen dituen segurtasun-neurriak ezarriz”.

80.4 art.: “Epaile eta auzitegi epai-emaileek inolako betekizunik gabe erabaki dezakete ezarrita dauden zigorretatik edozein etetea, baldin eta zigortuak gaixotasun oso larria badu, sendaezinezko jasankizunekin, salbu eta delitu egi-tean beste zigor bat arrazoi berberetatik duenean etenda. 5. 1. eta 2. baldintzak betetzen ez badira ere”.

92.1 art.: “Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, epaituek, hirurogeita hamar urte bete dituztenean edo kondena betetzen ari direla hirurogeita hamar urte betetzen dituztenean, baldintzapeko askatasuna lortu ahal izango dute, nahiz eta kondenaren hiru laurdenak edo, hala badagokio, bi herenak bete ez, baldin eta beste betekizunak biltzen badituzte. Irizpide bera aplikatuko da, medikuaren txostenaren arabera, oso larri dauden gaixoei, sendaezinezko jasankizunak badituzte”.

92.3 art.: “Barneratuak duen gaixotasuna edo adina dela eta, horren bizitza arrisku **nabarian** badago, eta hori egiaztatuta geratu bada, mediku forentseak eta espetxeko osasun-zerbitzuek emandako txostenean, orduan, espetxe-zaintzarako epaileak **baldintzapeko askatasuna baimen dezake**, hala denean, aurretiaz gradu-bilakaera gertatuta, eta **ez da beste izapidetik behar** espetxeari azken iragarpenaren txostena eskatzea baino, txosten horren helburua aurreko paragrafoak aipatu balioespina izanik. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo Espetxeetako Lege Organiko Orokorra-  
ren 75. artikulua agindutako jarrai-pen eta kontrolari”.

## \* **Espetxeei buruzko 1979ko Lege Organiko Orokorra**

1. art.: Lege honetan araututako espetxe-erakundeek xede nagusia da zigorrak eta askatasuna kentzeko neurriak ezarri zaizkien pertsonak berreztea eta birgizarteratzea, baita atxilotuak, presoak eta zigortuak atxikitzea eta zaintzea ere. Halaber, haien ardura da presoek eta askatutako pertsonen asistentzia eta laguntza ematea.

3. art.: Espetxe-jardunean beti errespetatu behar dira espetxeratuen giza nortasuna eta haien eskubide eta interes juridikoak, kondenak eragiten ez dienean, eta ezin da ezberdintasunik ezarri arraza, iritzi politikoak, erlijioa, izaera sozial edo antzeko beste edozein inguruabar direla eta.

3.4 art.: Espetxe-administrazioak presoek bizitza, osotasuna eta **osasuna** bermatu behar ditu.

12. art.: Establezimenduen **kokapena** espetxe-administrazioak erabakiko du ezartzen diren lurralde-eremuen barruan. Edonola ere, ahaleginak egingo dira espetxe-beharrizanak betetzeko eta zigortuen **deserrotze soziala** saihesteko behar beste establezimendu izateko.

## \* **Espetxeen Erregelamendua, 1996koa**

100.2 art.: Espetxe-sailkapena eta malgutasun-printzipioa.

2. Hala ere, sistema malguagoa izan dadin, talde teknikoak proposamena egin ahal izango dio tratamendu-batzordeari, zigortu bakoitzari dagokionez, zigorra betetzeko, **gradu bakoitzaren ezaugarri diren alderdiak** txertatzen dituen ereduak erabil dezan, betiere neurri horrek oinarrian badu beste era batera gauzatu ezin daitekeen tratamendu-programa espezifiko bat. Salbuespen-neurri hau dagokion zaintza-epaileak onartu beharko du, neurria berehala bete behar izanari eragin gabe.



\*

### ***Kode Zibila (arau orokorra)***

3. art.: “Arauk euren hitzez-hitezko esanguraren arabera interpretatuko dira, betiere, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzazko aurrekariari, eta arau horiek aplikatu behar diren **garaiko gizarte-errealitateari** lotuta, eta, batik bat, arauen espiritua eta xedea kontuan hartuta”.

\*

***Europako Kontseiluaren esparru-erabakia, Europar Batasuneko estatuetan betetako zigorrak metatzeari buruzkoa.***

2008/675/JAI